

IRAKURKETA-GIDA

Seme maitea: greban gaude

Jordi Sierra i Fabra

begiko

Seme maitea: greban gaude

Jordi Sierra i Fabra

LIBURUAREN AURKEZPENA



Egilea

Jordi Sierra i Fabra Bartzelonan jaio zen 1947an, baina berak nahiago du Lurrean jaio zela esatea, ez duelako ez mugetan ez banderetan sinesten. Oso txikitan, 8 urterekin erabaki zuen nobelagile izango zela, eta geroztik ez dio idazteari utzi.

Rock-arekin lotura handia du (Espainiako aldizkari nagusietako batzuen zuzendari eta kasu askotan sortzaile izan da), eta horrek ere eman dio ospea, baina ez du inoiz alde batera utzi bere egiazko grina: gainezka egiten dion irudimenetik sortutako istorioak idaztea. 1972an argitaratu zuen lehen liburua. Gaur egun 400 lan baino gehiago ditu idatziak, asko *best seller*ak, eta ia 30 sari irabazi ditu, baita ehunka ohorezko aipamen ere. Ohorezko hainbat zerrendatan ere ageri da.

2004an Jordi Sierra i Fabra Fundazioa sortu zuen (Kultur Sustapenari ematen zaion Ibbby-Asahi Saria jaso zuen 2010ean), baita Jordi Sierra i Fabra Letren Tailerra Fundazioa ere, Kolonbian. 2011n patrono gisa sartu zen Cervantes Institutuan.

Irudigilea

Ximena Maier Madrilen jaioa da, 1975ean. Irudigile-lanetan ari da 1999tik, egunkarietan (*El País*, *Diario 16*, *La voz de Galicia*) eta aldizkarietan (*Telva*, *Marie Claire*, *Yo Dona*, *Cosmopolitan*, *Woman*, *Mia*...), baita publizitatean ere. Haur-literaturako liburuak, bidaia-gidak eta sukaldaritza-liburuak ere irudiztatzen ditu. Etenik gabe marrazten du: koadernoetan, iPadean, harean edo parean duen edozein arbeletan.

Maite ditu irakurtzea, jatea eta sukaldea, eskuz margotutako kartel tipografikoak, esplorazio polarren garai heroikoa, Italiako opera eta piknikak. Ezkonduta dago, bi seme-alaba ditu, bi blog, Twitterreko profila, eta Pinteresten zale amorratua da.

Liburua

Unaik ez du etxean batere laguntzen, lotsagabea da, ez dio gurasoek esandakoari kasurik egiten, eta gainera, ikasturtea nota txarrekin amaitu du. Oporrak hastear, Unaik errieta latza espero du, baina gurasoek erabaki dute kasu zipitzik ez egitea.

Unaik arraro samar sumatzen ditu gurasoak eta uste du, beharbada, estralurtarrak haien borondateaz jabetu direla, baina ez, hori baino askoz okerragoa da: guraso-greban daude. Unaik bere kabuz moldatu beharko du... eta bere gurasoak ez dira bakarrik, adiskideen gurasoak ere greban daude.

Unaik eta lagunek batzarra egin dute parkean, eta erabaki dute negoziatzeko ordua dela, greba guztietan horixe egiten baita: gatazkaren alde bakoitzak zer baldintza jartzen dituen jakin, egoera normaltasunera itzul dadin. Lortuko ote dute ados jartzea?

Zergatik irakurri liburu hau?

Unairen gurasoak nazkatuta daude, semearen esklabo izateaz nekatuta, umea nahi duena egitera ohituta baitago, eta horregatik, modu berean jokatzera erabaki dute. Semea abandonatuta sentitzen da etxean, orain inork ez baitio ezer agintzen: berak bakarrik jaso beharko du gela, ohea egin, ikasi, kontsolaren erabilera neurtu...

Ironiaz eta umore printza handiz, nobelak mutiko apetatsu eta esan txarreko baten nondik norakoak kontatzen ditu. Gurasoek grebari ekin diote, eta mutilak, halaberharrez, hausnartu egin beharko du bere portaera txarraren gainean, harekin batera bizi direnei eragiten baitie.

Liburuak gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Hizkuntzaren lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasun nagusiei igartzea.

Zientziarako gaitasuna

Teknologien, produktu teknologikoen eta bideojokoen onurak eta arriskuak.

Baliabide informatikoen erabilera arduratsua eta kontrolatua.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna eta Elkarbizitzarako gaitasuna

Bizikidetza-egoerak eta bizikidetza-gatazkak: gatazkaren aurretik, gatazkaren garaian eta gatazkaren ondoren: konpontzeko modu demokratikoak.

Gatazkak konpontzeko, elkarrizketa erabiltzeko eta bizikidetza-arauak erabiltzeko trebetasunak.

Haurren eskubideen Konbentzioak jasotako eskubideak eta betebeharrak zein diren jakin, bere gain hartu eta babestea.

Greba zer den eta langileok grebarako eskubidea zergatik dugun ulertzea.
Bizikidetza-arauak proposatu, egin eta errespetatzea.

Mugimendurako gaitasuna

Ariketa fisikoak osasunarekin eta ongizatearekin duen harremana.

riketa fisikoak osasunari dakarzkion onurak aitortzea.

Futbola bezalako kirolak balioestea, gozatzeko, harremanak izateko eta aisiako denbora eta esfortzua jolasetan eta kirolean erabiltzeko modua ematen duen aldetik.

Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna

Etxeko elkarbizitzan gaizki egindako ekintzak ebaluatzea, haien berri ematea eta hobetzeko proposamenak egitea, bilera batean adibidez.

Izaten ikasteko gaitasuna

Autonomia garatzea, erabaki pertsonalak hartu eta gauzatzeko ahalmen gisa ulertuta, eta norberaren ekintzen eta bizitzaren erantzule izanda.

Gurasoen besapetik poliki-poliki ateratzen joatea eta etxean ardura gehiago hartzen joatea.

Balioetan hezte

Liburuak egokiera ezin hobe ematen du ikasleekin eta familian bakoitzak dituen eskubide eta betebeharrei buruz hitz egiteko. Horrez gain, liburu honen bitartez irakurleek etxean nahikoa laguntzen duten hausnartuko dute. Liburuko protagonistak autonomia garatzen du eta horregatik garapen pertsonala lortzen du. Hala-ber, familia-bizikidetza era baketsuan gauzatu dadin bizikidetza-arauak adostu eta errespetatu behar direla ikasiko dute.

JARDUEREN PROPOSAMENA

Irakurri eta ulertu

Liburuaren azala · 1. jarduera

Irakurri behar duten nobelaren titulua zeinen deigarria den ohartaraziko diegu ikasleei, eta azaleko irudia deskribatzeko eskatuko diegu. Garrantzitsua da familia-giroko eszenari erreparatzen diotela ziurtatzea, nola semeak aita eta ama egongelako sofán harrapatzen dituen, aita kontsolarekin jolasean eta ama lasai ederrean irakurtzen, eta nola dauden lurrean pizza arrastoak, freskagarrien edalontziak...

Ondoren, irakurriko dugun istorioari aurre hartzeko zenbait galdera egingo dizkiegu: Zer gertatzen da irudietan? Zer esan nahi du *greba* hitzak? Zein izan daiteke izenburu hori duen nobela baten gai nagusia? Zer lotura dago nobelaren izenburuaren eta azaleko irudiaren artean? Zer ari ote da gertatzen etxe horretan? Zergatik ote daude gurasoak greban?

Pertsonaia gurutzatuak · 2. jarduera

Ikasleei eskatuko diegu protagonisten eta liburuko gainerako pertsonaien izenak gogoratzeko eta, beren eskarmentuan oinarrituta, pertsonaia horien jokabide eta jarrerari buruz duten iritzia emateko.

Ondoren, aipatutako pertsonaien izen eta datuekin hitz gurutzatuak osatzeko proposatuko diegu.

Istoria ordenatzea · 3. jarduera

Fitxan, istorioaren pasarte esanguratsuenetako batzuen irudiak ageri dira desordenatuta. Horien ordena zuzena adierazteko eskatuko diegu ikasleei, eta bakoitzean gertatzen dena deskribatzeko, denbora-adierazleak erabiliz: *hasieran*, *ondoren*, *gero*, *azkenik*.

Zerk eragin du zer? · 4. jarduera

Ikasleei adieraziko diegu bereiz ditzatela tramaren gertakari nagusiak eta identifika dezatela zerk eragin dituen gertaera horiek. Istorio honetako pertsonaiek zergatik dituzten jarrera eta jokabide horiek, zerk eragin duen zer, ulertu dutela ziurtatu behar dugu.

Jarduera bideratzeko, honelako galderak egin ditzakegu: Zergatik daude greban Unairen gurasoak? Zer gertatzen da etxean erabaki horren ondoren? Zer dela-eta erabakitzen du Unai adiskideei laguntza eskatzea? Zer erreakzio dute gurasoek?

Fitxan, ikasleek komiki-tirak osatu beharko dituzte, aurkeztutako irudiaren aurreko eszena imajinatuz eta marraztuz.

Nire gurasoak greban

Pertsonaiekiko identifikazioa landuko dugu; kasu honetan, Unairekikoa. Ikasleei liburuko pasarteren bat oroitzeko eskatuko diegu, eta beren burua protagonista-ren azalean imajinatzeko. Ondoren, pasarte marrazteko proposatuko diegu.

Ozen: *Irakurketa antzeztua*

Hirunaka, 20.-21. orrialdeetako pasartearen irakurketa egingo dugu, elkarrizketa bidez, «Une batez, ama barreka hasteko zorian zegoela iruditu zitzaion Unairi» esalditik hasi eta kapituluaren amaieraraino. Hiru lagunek esku hartzen dute eszena horretan: Unai eta ama, eta narratzaileak.

Hasteko, bakoitzak ahots behera irakurriko du pasarte, eta ondoren, taldean. Gero, talde batzuk aukeratuko ditugu gela osoarentzat irakur dezaten. Ahotsa egokitze eskatuko diegu: ama emakume baten moduan hitz egin dezala, Unai haur batek bezala eta narratzaileak esatari ahotsez.

Haurrek testua ahoskera argiz eta doinu egokiz irakurtzen dutela eta puntuazio-ikurrek adierazitako etenak egoki egiten dituztela egiaztatuko dugu.

Ezkutuko esaldia · 5. jarduera

Pertsonaietako batek esaten duen esaldi bat aurkitzeko proposatuko diegu ikasleei, jardueran ezkutatuta ageri baita. Horretarako, letrekin osatu beharko dute laukisarea, behean agertzen diren koordinatuetan adierazitakoaren arabera.

Baloratu

Iritziak adieraztea

Liburua osorik irakurri ondoren, istorioa zer iruditu zaien adierazteko eskatuko diegu ikasleei, eta argumentuaren laburpen bat egiteko, lanaren ideia nagusiak azpimarratuz.

Eskubideak eta betebeharrak, elkarren artean lotuta

Unairi betebeharrak edo eskari batzuen zerrenda ematen diote gurasoek. Eta, trukean, mutikoak bere eskubideak aitortzeko eskatzen du. Kasu askotan, eskubideak eta betebeharrak bata bestearekin lotuta daude. Gizarte batean, adibidez, hirian autoz ibiltzeko eskubidea dugu, eta horrek esan nahi du zirkulazio-arauak bete behar ditugula.

Binaka, haur batek eskubide bat adieraziko du eta besteak zer betebeharrak dagokion erantzun beharko du. Adibidez: arropa garbia izateko eskubidea > arropa zikina saskian uzteko betebeharra.

Binaka beharrean, ikasgela guztiak batera edo bi taldetan banatuta ere egin dezakegu jardura hau.

Eztabaida: Bizikidetza egokirako baldintzak ·

6. jardura

Bake giroan bizitzeko, beharrezkoa da guztiok zenbait arau betetzea. Gai hau lantzeko, Unairen gurasoek greba bertan behera uzteko jartzen dituzten baldintzak irakurriko ditugu (130.-132. orrialdeak). Ondoren, Unairen baldintzak irakurriko ditugu (140.-141. orrialdeetan ageri dira), baita Ander lagunari kopiatuta gehitzen duena ere.

Jarraian, eskolan bizikidetza hobea lortzeko ikasleek eta irakasleek zer baldintza bete beharko lituzketen idazteko eskatuko diegu: beren ustez irakasleek zer baldintza eska ditzaket (ikasleek betetzeko), eta ikasleek zer baldintza eska ditzaket (irakasleek betetzeko).

Irakasleen eskubide eta betebeharrak zein diren eta ikasleenak zein diren eztabaidatuko dugu guztion artean. Bakoitzak bere eginbeharrak betetzea zergatik den hain garrantzitsua ere har dezakegu hizpide.

Gizarte-ordenamendua

Unairen istorioak erakusten digu guzti-guztiok, gurasoek nahiz seme-alabek, zenbait eskubide eta betebeharrak ditugula, eta garrantzitsua dela horiek errespetatzea elkarrekin bizi ahal izateko. Ikasleei proposatuko diegu etxeko bizikidetzan ez ezik, hiri edo herrialde bateko bizikidetzan ere pentsatzeko. Herritarrek ba al dute eskubide eta betebeharrak? Non daude idatzita? Badakite zer den Konstituzioa?

Beren ustez zer eskubide eta betebeharrak ditugun galdetuko diegu. Adibide batzuk jar ditzakegu, orientatzeko: herritar gisa, hiri garbia izateko eskubidea dugu, eta ez zikintzeko eta paperak paperontzira botatzeko betebeharra dugu; segurtasunez bizitzeko eskubidea dugu (horretarako dago polizia), baina, horri loturik, legeak betetzeko eta, adibidez, ez lapurtzeko betebeharra dugu.

Haurren eskubideak

Haurren Eskubideen inguruan lan egin dezakegu. Hasteko, ikasleei eskatuko diegu bila dezatela Haurren Eskubideen Aldarrikapena eta Hitzarmenari buruzko informazio orokorra: Zer urtetan sinatu ziren? Zer erakundek proposatu zituen? Zein herrialdek berretsi zuten akordioa eta zeinek ez?...

Ondoren, hamar taldetan banatuko dugu gela eta talde bakoitzari Aldarrikapenean jasotako haurren hamar eskubideetako bat emango diogu. Egokitutako eskubide hori grafikoki ahalik eta hobekien adierazteko modua aurkitu beharko du bakoitzak. Taldeek beren lana aurkeztuko dute, eta ondoren, gaiari buruzko aurkezpena egingo dugu guztion artean.

Azkenik, Hitzarmenari buruzko eztabaida egin dezakegu gelan, galdera hauetan oinarrituta:

- Garrantzitsua al da Haurren Eskubideei buruzko nazioarteko legeak izatea? Zergatik?
- Mundu guztian betetzen al dira eskubide horiek?
- Herrialde batzuek zergatik ez dituzte sinatu nahi izan akordio horiek?
- Zer jar dezake bakoitzak, beretik, Haurren Eskubideak errespetatu daitezen?
- Beste eskubideren bat gehituko zenuke Aldarrikapenean?

Sortu

Idazlearen lanbidea: *Pertsonaiak asmatzea* · 7. jarduera

Nobelarako beste pertsonaia bat asmatzeko proposatuko diegu ikasleei: Nor litzateke? Nolakoa litzateke pertsonaia hori? Zer egingo luke? Fisikoki deskribatzeko, nola janzten den adierazteko eta, bereziki, istorioan zer rol izan dezakeen pentsatzeko eskatuko diegu.

Ondoren, asmatu duten pertsonaiaren eta nobelako beste baten arteko elkarriketa bat imajinatze esango diegu.

Gu komikilari

Gure ikasleek ondo ezagutzen dituzte komikiak. Bat sortzeko proposatuko diegu. Horretarako, kapitulu bat edo bi aukeratu beharko dituzte, eta bospasei esalditan laburtu beharko dute, kapitulu horietako une garrantzitsuenak jasoz. Ondoren, komikiek zer ezaugarri dituzten gogoraraziko diegu (binetatan antolatuta daude; elkarriketa, pentsamendu eta ametsentzako bunbuiloak; onomatopeien erabilera...) eta aukeratutako kapitulua komiki bihurtzeko eskatuko diegu. Amaitzeko, komikien erakusketa atondu dezakegu gelan.

IZENA: MAILA:

SEME MAITEA: GREBAN GAUDE

Jordi Sierra i Fabra

1. jarduera · Liburuaren azala

Begiratu liburuaren azalari, eta erantzun galdera hauei:

- Zer gertatzen da irudian? Nor dira pertsonaiak? Zer egiten ari da bakoitza?

.....

.....

.....

- Zer esan nahi du *greba* hitzak? Ez badakizu, hiztegian bila dezakezu, baina saia zaitez zure hitzekin definitzen.

.....

.....

.....

- Oroitzen al duzu greba kasu ezagunen bat? Heldu bati galde diezaiokezu. Idatzi noiz eta non izan zen greba, nor ziren grebalariak eta zer eskatzen zuten. Era berean, ikertu eta azaldu nola amaitu zen protestaldi hura.

.....

.....

.....

.....

- Zer gairi buruzkoa izan daiteke horrelako izenburua duen nobela bat?

.....

.....

.....

- Pentsatu eta idatzi zer arrazoiengatik egingo luketen greba guraso batzuek.

.....

.....

.....


IZENA: MAILA:

SEME MAITEA: GREBAN GAUDE

Jordi Sierra i Fabra

2. jarduera · Pertsonaia gurutzatuak

Osatu hitz gurutzatu hauek istorioko pertsonaien izen eta datuekin.



HORIZONTALAK

1. Protagonistaren aitaren izena.
2. Lorezainaren izena.
3. Protagonistak eta lagunek egiten duten kirola.

BERTIKALAK

1. Nobelako protagonistaren izena.
2. Protagonistaren amaren izena.
3. Amaren lanbidea.

IZENA: MAILA:

SEME MAITEA: GREBAN GAUDE

Jordi Sierra i Fabra

3. jarduera · Ordenatu istorioa

Nobelako bost pasarte dituzu hemen, baina ez daude ordenan. Zenbakitu 1etik 5era, istorioan gertatzen diren ordenaren arabera. Ondoren, idatzi zer gertatzen den bakoitzean, denbora-lotailuak erabiliz: *ondoren, gero, azkenik...*



1. Pasarte honetan,

.....

2.

.....

3.

.....

4.

.....

5.

.....


IZENA: MAILA:

SEME MAITEA: GREBAN GAUDE


Jordi Sierra i Fabra

4. jarduera · Zerk eragin du zer?

Irudi hauetan nobelako hiru gertaera adierazi dira. Begiratu, marraztu eta azaldu zer dela-eta gertatzen den horietako bakoitza.



Arrazoi honek eragin du irudiko gertaera:



Arrazoi honek eragin du irudiko gertaera:



Arrazoi honek eragin du irudiko gertaera:

IZENA: MAILA:

SEME MAITEA: GREBAN GAUDE

Jordi Sierra i Fabra

5. jarduera · Ezkutuko esaldia

Lauki-sare honetan nobelako pertsonaia baten esaldi bat dago ezkutatuta. Begiratu ondo beheko koordenatuei eta kokatu letra bakoitza dagokion laukian. Kontuan izan lehen zenbakia ilarari dagokiola eta bigarrena, zutabeari.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

(1, 2) M	(2, 4) E	(3, 5) A	(1, 4) A	(6, 2) S	(6, 9) O
(2, 6) A	(3, 3) I	(6, 8) K	(1, 3) E	(3, 9) N	(3, 4) K
(1, 6) N	(5, 4) H	(7, 6) B	(5, 7) K	(4, 1) A	(5, 8) A
(4, 2) R	(8, 9) N	(5, 6) N	(4, 5) N	(1, 9) Z	(7, 7) I
(1, 8) I	(8, 10) I	(8, 4) K	(10, 1) Z	(9, 10) A	(8, 6) T
(1, 7) A	(2, 5) T	(9, 4) T	(6, 4) R	(8, 3) U	(6, 6) Z
(6, 7) E	(1, 1) U	(7, 5) U	(4, 8) Z	(3, 7) T	(8, 5) A
(8, 1) D	(6, 5) T	(4, 3) I	(9, 5) E	(9, 1) H	(9, 2) E
(7, 1) S	(4, 7) I	(10, 2) U	(7, 2) E	(6, 3) A	(10, 3) E
(7, 8) D	(7, 4) K	(9, 3) Z	(10, 8) N	(7, 9) E	(3, 8) E
(10, 4) N	(3, 6) S	(7, 10) A	(5, 5) A	(9, 6) A	(4, 6) A
(8, 2) A	(9, 9) D	(10, 6) L	(10, 9) A	(10, 7) A	(7, 3) S

IZENA: MAILA:

SEME MAITEA: GREBAN GAUDE

Jordi Sierra i Fabra

6. jarduera · Bizikidetza egokirako baldintzak

Liburuaren 130.-132. orrialdeetan jasotzen dira Unairen gurasoek greba bertan behera uzteko eginiko eskariak. Eta 140.-141. orrialdeetan, Unaik eta Ander lagunak jarri nahi dituztenak. Elkarrekin bake-giroan bizitzeko, garrantzitsua da guztiok zenbait arau edo baldintza errespetatzea.

Pentsatu zer arau jar ditzakezuen zuk eta ikaskideek ikasgelan bizikidetza hobia izateko. Eta pentsatu irakasleek betetzea nahiko zenuketen beste arau batzuk ere. Idatzi proposamenak.

Haurren betebeharrak:	Irakasleen betebeharrak:

7. jarduera · Pertsonaiak asmatzea

- Asmatu beste pertsonaia bat nobelarako: Nor da? Zer egiten du? Deskribatu nolakoa den fisikoki, nola janzten den eta zer rol duen istorioan.

.....

.....

.....

.....

- Idatzi asmatu duzun pertsonaiaren eta nobelako beste baten arteko elkarriketa bat.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

SEME MAITEA: GREBAN GAUDE

Jordi Sierra i Fabra

Irakurmen-testa

Pentsatu ondo galderetan, eta markatu erantzun zuzenak.

1. Zer izen dute Unairen gurasoek?

- ☐ a Lierni eta Mikel.
- ☐ b Sonia eta Endika.
- ☐ c Sonia eta Mikel

2. Zer ikasgai utzi ditu Unaik gainditu gabe azken ebaluazioan?

- ☐ a Ingurunearen Ezaguera eta Euskara.
- ☐ b Ingurunearen Ezaguera eta Matematika.
- ☐ c Euskara eta Matematika.

3. Zer egitea erabaki du Unaik ebaluazioko notak jakin ondoren?

- ☐ a Eskola uztea.
- ☐ b Berehala ikasten hastea.
- ☐ c Egun batzuetan atseden hartzea, deskonektatzeko.

4. Zer egiten dute protagonistaren gurasoek greba garaian?

- ☐ a Kotsolan jolastu, gimnasia egin eta lagunekin zinemara joan.
- ☐ b Ez diote elkarri hitzik egiten eta huskeriengatik hasten dira eztabaidan.
- ☐ c Egun osoa beren gelan itxita ematen dute.

5. Zein dira Unairen taldean futboleko ongien moldatzen direnak?

- ☐ a Unai eta Anjel.
- ☐ b Xabi eta Unai.
- ☐ c Xabi eta Anjel.

6. Zer egin du Unaik gurasoak greban daudela jakitean?

- ☐ a Osaba-izebekin bizitzera joatea erabaki du.
- ☐ b Bere artean galdetu du ea estralurtarrak gurasoen borondateaz jabetu diren.
- ☐ c Berak ere greba egitea erabaki du.

IZENA: MAILA:

SEME MAITEA: GREBAN GAUDE

Jordi Sierra i Fabra

7. Nor da Unairen lagunik onena?

- ☐ a Ander.
- ☐ b Anjel.
- ☐ c Xabi.

8. Zer dio Unairen gurasoek gelan jarritako kartelak?

- ☐ a «Arriskua!».
- ☐ b «Barrikadetara!».
- ☐ c «Gora greba!».

9. Zer izan nahi zuen Haritzek?

- ☐ a Futbolaria.
- ☐ b *National Geographic*eko berriemailea.
- ☐ c Abokatua.

10. Nola sentitzen da Unai gurasoekin negoziatu ondoren?

- ☐ a Haserre.
- ☐ b Etsita eta oso triste.
- ☐ c Leher eginda, baina oso pozik.

Erantzunak

SEME MAITEA: GREBAN GAUDE


Jordi Sierra i Fabra

Liburuaren azala • 1. jarduera

1. Pasarte honetan, Unai bere laguna Anderrekin futbolean jolasteko geratu da eta ama abisatzera joaten denean, ama gimnasia egiten aurkitzen du.
2. Ondoren, Unaik bere bideojokoekin jolasean topatzen du bere aita.
3. Gero, ama eta aita filme bat ikusten daudenez, Unaik berak prestatu behar du afaria,
4. Ostean, Unaik eta Anderrek Haritz lorezainarekin hitz egiten dute, eta euren gurasoak greban daudela esaten diotenean, gurasoen alde da-goela deskubritzen dute.
5. Azkenik, gurasoekin zenbait bizikidetza-arau finkatu ondoren, greba amaitzen da eta Ander eta Unai la-saiago geratzen dira.

Istoria ordenatu

• 3. jarduera




Zerk eragin du zer?

• 4. jarduera

1. Unaik olio gehiegi erabili du xerra frijitzeko.
2. Unai egongelara joan da «gutxiegi» atera duela esatera, eta bertan topatu du aita kontsolarekin jolasean.
3. Unai Joxemarirengandik gertu jarri da futbol zelaian, eta Joxemarik gogor jo dio baloiari.

Pertsonaia gurutzatuak

• 2. jarduera



Erantzunak

SEME MAITEA: GREBAN GAUDE

Jordi Sierra i Fabra

Ezkituko esaldia

• 5. jarduera

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	U	M	E	A		N	A	I	Z	
2				E	T	A				
3			I	K	A	S	T	E	N	
4	A	R	I		N	A	I	Z		
5				H	A	N	K	A		
6		S	A	R	T	Z	E	K	O	
7		E	S	K	U	B	I	D	E	A
8	D	A	U	K	A	T			N	I
9	H	E	Z	T	E	A			D	A
10	Z	U	E	N		L	A	N	A	

Bizikidetza egokirako baldintzak

• 6. jarduera

E.E.:

Haurrak: ez oihukatu gelan, gela garbi utzi, errespetatu ikaskideen iritziak, hitz egiteko eskua altxatu...

Irakasleak: Galderei modu onean erantzun, azterketak garaiz zuzentzea, behar bereziak dituztenentzat materiala prestatzea, jolas didaktikoak prestatzea...

Pertsonaiak asmatzea

• 7. jarduera

E.L.

Irakurmen-testa

1 b; 2 c; 3 c; 4 a; 5 c; 6 b; 7 a; 8 b; 9 b;
10 c.